

**15/2021 TXOSTENA, AZAROAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: C02/007/2020 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA LUZATZEKO AUKERARI  
BURUZKO TXOSTENA.****I.- AURREKARIAK.**

2021eko azaroaren 10ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena eskatu du Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoko eta Zerbitzuetako zuzendariak. C02/007/2020 kontratazio-espedientea luzatzeko aukerak zuzenbidea betetzen duen azaltzeko izan behar zen txostena.

**II.- ESKUMENA.**

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 27.c) artikuluan xedatutakoa betez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen kontsulta-eginkizunak dira, besteak beste: «Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz. Aholku Batzordearen eskumenekoa da, halaber, interes ekonomikoak eta profesionalak dituzten elkarteak eta erakundeek kontratazioaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera organo ordezkariak egin behar du».

II.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak soilik egin ditzakete txostenak 9/2017 Legeak 328. artikuluan ezarritako moduan (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baitu Espainiako ordenamendu juridikora) eta 116/2016 Dekretuak 27. artikuluan ezarritakoa betez (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa). Izan ere, horien



arabera, Aholku Batzordearen txostenetan soilik jorra daitezke kontratazio publikoari lotutako gai orokorrak, hots, Batzordeak ez du eskumenik azaldutako gai zehatza bezalakoei buruzko txostenak egiteko edo lege-aginduek Batzorde hau ez den beste organo batzuei esleitzen dizkieten eginkizunak ordezteko. Azalpen hori bera jaso du Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak hainbat txostenetan (besteak beste, 29/17, 72/18 eta 97/18 txostenetan), eta Batzorde honen 18/19 txostenean ere horrela azaldu da.

## **ERABAKIA**

Ez egitea txostena C02/007/2020 kontratazio-espedientea luzatzeko aukerari lotuta egin den eskaerari buruz.